

HAURRENTZAKO ANTZERKI PROGRAMAZIOA

Programación de teatro infantil

Antolatzaileak: Urretxu eta Zumarragako udalak

Egunak / Dias: - otsailak 18 febrero
- martxoak 17 marzo
- apirilak 15 abril
- urriak 21 octubre
- azaroak 25 noviembre

Ordua / Hora: 17:00

Lekua / Lugar: Labeaga aretoa (Urretxu)

(* martxoaren 17koa, Ederrena pilotalekuan, 16:30 eta 18:30)

18

otsaila
igandea

AZKEN EGUZKILOREA (Euskaraz) PATATA TROPIKALA

Baserriko Kattalin, herrira jeitsi eta bere lagun guztiak desagertu direla ohartuko da. Herrian ez du gertatu denaz inongo erantzunik topatuko. Beraz, adorez bete eta MARI Jainkosari galdetzeraz abiatuko da, nahiz eta basoan betirako harrapatuta geratu daitekeela jakin. Hemendik aurrera, KATTALIN, Mitologian murgilduko da haziko den AZKEN EGUZKILOREA topatzeko. Bertan, MARI, BASAJAUN, TARTALO, GALTZAGORRIAK e.a. Ezagutuko ditu. Baita GAUEKO beldurgarria ere.



Iraupena: 90 minutu

Adina: 2-12 urte bitarteko haurrentzat

17

martxoa
larunbata

BOROBILEAN (Euskaraz) PIRRITX, PORROTX eta MARIMOTOTS

Pailazoen galdera egingo diote euren buruari: Nork agintzen du etxean? Nork eskolan? Eta kalean? Lagunartean? Borobilean eseriko dira denak, begiak eta bihotzak elkarri begira: arauak ezarri, ardurak hartu eta banatu, antolatu, nork bere lekua hartu, pozak, minak eta desirak elkarri kontatu, errespetua landu, elkar ulertzen saiatu, erabakiak hartu... Eman, jaso eta moldatu, bizikidetzaren sokatan funanbulista bihurtzaraziko gaituzte pailazoen.



Iraupena: 90 minutu

Adin guztientzat

Lekua: Ederrena pilotalekua (Urretxu)

15

apirila
igandea

JON BRAUN (Euskaraz) **ANITA MARAVILLAS & PORTAL 71**

Jon Braun beti ilusioz aurrera egiten duen indio txiki bat da. Jon Braunek munduko Jon Braun txiki guztiak hurbildu nahi dizkigu aretoko eserlekuetara. Indio tipiaren herria natura, zoriona eta poza dira nagusi, baina, bat-batean, zoritxarra beraien herrira heldu da. Ezustean, Jon Braun txikia bakar-bakarrik geratu zaigu, baina han, urrunean, bere arreba nagusiak ez du inoiz ahaztu eta ez du bera topatzeko saiakeran inoiz etsi. Jon Braun zoritxarren aurrean maitasunak ematen digun ausardiak mintzo zaigu.



Iraupena: 55 minutu
Adina: +4 urte

21

urria
igandea

KAPUT (Euskaraz) **GANSO Y CIA**

Kaputek bi zororen eta auto baten ihes geldia konstatzen digu. Bi bidaideak gure aterpean hartuko ditugu, itxaropena eta barealdi-tartea emateko. Kaput barretik eta optimismotik gerren drama unibertsalera eta bere zeharkako efektuetara hurbiltzen gaituen komedia hunkigarri, urratzaile eta zentzugabea da. Dibertitzeko eta publiko guztiak hunkitzeko gai den hitzik gabeko bidaia.



Iraupena: 60 minutu
Adina: + 5 urte

25

azaroa
igandea

EURIA (Euskaraz) **MARKELIÑE**

“Euria” lanak, maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz hitz egiten du. Etazerbaitaldatau dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora guztiari buruz. “Euria” lanean ur tantak daude, bi aterkirekin bizi den pertsonaia, lanabes kaxa bat, eskegitzeko gantxoak, plantxa ero bat, abesti triste baten gaineko keinu ederrak, berokia, kanpora ematen duen leihoa, oroitzapenen iratzargailua eta baita marraztutako eguzkia ere. Norbaitek, altxatzeko eta aurrera egiteko dugun gaitasunaren metafora ere ikus dezake eguzki horretan.



Iraupena: 60 minutu
Adina: + 5 urte

HAURRENTZAKO ANTZERKI PROGRAMAZIOA

Programación de teatro infantil

Antolatzaileak: Umetxu eta Zumarragako udalak

- **SARRERA / ENTRADA:** 5 euro

- **SARRERA / ENTRADA:** PIRRITX, PORROTX eta MARIM OTOTS: 7 euro

- **BONUA:** 20 euro († Porrotx eta Marim ototsen 16:30 saiorako balio du)

- **BONUA (haurra eta laguntzailea) / BONO (niño/a y acompañante):** 30 euro
† BONUEK Piritx, Porrotx eta Marimototsen 16:30 saiorako balio dute.

BONUEN SALMENTA / VENTA DE BONOS:

Urtarrilaren 18tik otsailaren 16ra, astelehenetik ostiralera

Del 18 de enero al 16 de febrero, de lunes a viernes

10:00 – 13:30 / 17:00 – 20:00

Lekua / Lugar: Aizpuru nea kultur etxea (Urretxu)